BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Sestaoko Udala

### 2017. urterako Enpleguaren Eskaintza Publikoa onartzea

Giza Baliabideen Ordezkari den Bigarren Alkateordeak Dekretu bidez , 2017ko abenduaren 18ko datarekin, honako hau xedatu du:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Berregina onartze duen urriaren 30eko 5/2015 Legeak, 70. artikuluak, eta uztailaren 6ko 6/89 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 22. artikuluak, ezartzen dute ezen aurrekontuaren diru-kopuru bat esleituta duten giza baliabideen beharrizanei, langile etorri-berriez bete behar direnean, Lan Eskaintza Publiko baten bidez erantzungo zaiela.

Horren ondorioz, Langile Zerrendan gertatutako aldakuntzak ikusita eta pertsonaleko beharrizanak aztertuta, eta eman zaidan aginpidea erabiltzen dudalarik,

EBAZTEN DUT:

1. 2017. urterako Lan Eskaintza Publikoa onartzea. Funtzionario-plaza hauetan izango du eragina, hurrengo aginduen arabera:

**SARRERA LIBREKO SISTEMA**

ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ESKALA

### A) Administrarien Azpi-eskala

| Taldea | Izaera | Plazaren izendapena | Plaza kopurua | Hizkuntza eskakizuna: | Derrigorrezko H.Eskakizuna | H.E. Ez Derrigorrezkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| C1 | KF | Administraria | 2 | 2 | 1 | 1 |

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

### B) Azpieskala Teknikoa

| Taldea | Izaera | Plazaren izendapena | Plaza kopurua | Hizkuntza eskakizuna: | Derrigorrezko H.Eskakizuna | H.E. Ez Derrigorrezkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A2 | KF | Gizarte-langilea | 3 | 3 | 1 | 2 |
| A2 | KF | Informatikan Diplomatua | 1 | 2 | — | 1 |
| A2 | KF | Enplegu Teknikaria | 3 | 3 | — | 3 |
| A2 | KF | Erizaintzako diplomatua | 3 | 3 | | 3 |

### C) Zerbitzu Berezien Azpieskala

a) *Udaltzaingoa*

| Taldea | Izaera | Plazaren izendapena | Plaza kopurua | Hizkuntza eskakizuna: | Derrigorrezko H.Eskakizuna | H.E. Ez Derrigorrezkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| C2 | KF | Udaltzaina | 6 | 2 | 4 | 2 |

eek: BAO-2018a001-(II-6046)

b) *Ofizioetako langileak*

| Taldea | Izaera | Plazaren izendapena | Plaza kopurua | Hizkuntza eskakizuna: | Derrigorrezko H.Eskakizuna | H.E. Ez Derrigorrezkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| C2 | KF | Sukaldaria | 2 | 1 | — | 2 |
| C2 | KF | Kiroldegiko Mantenurako Ofiziala | 2 | 1 | — | 1 |
| E | KF | Garbitzailea | 1 | 1 | — | 1 |

c) *Zeregin berezietarako plazak*

| Taldea | Izaera | Plazaren izendapena | Plaza kopurua | Hizkuntza eskakizuna: | Derrigorrezko H.Eskakizuna | H.E. Ez Derrigorrezkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| C2 | KF | Geriatria Laguntzailea | 3 | 2 | — | 3 |
| C2 | KF | Liburutegiko Laguntzailea | 1 | 2 | 1 | — |
| C1 | KF | Monitore Soroslea | 1 | 2 | 1 | — |

Plazei dagozkien deialdiek zehaztuko dituzte eskainitako plazetara aurkezteko prozedura eta betebeharrak.

2. Lan Eskaintza Publikoak bat egiten du ekainaren 28ko 3/2017 Legeak, Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, adierazitako irizpideekin.

3. Eskaintza hori indarreko lege-xedapenei jarraiki argitaratuko da.

Sestaon, 2017ko abenduaren 21ean.—Bigarren Alkateordea, Giza Baliabideen Ordezkaria

eek: BAO-2018a001-(II-6046)